

LEZOKO UDALA

OINARRI OROKOR ETA
ESPEZIFIKOAK

2026 URTERAKO
DIRULAGUNTZA IREKIEN
2. DEIALDIA

LEZOKO UDALA
2026 URTERAKO DIRULAGUNTZA IREKIEN DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Lezoko Udalak euskararen, gizarte zerbitzuen eta kirolaren arloan dirulaguntzak ematea jasotzen du 2026ko udal aurrekontuetan. Laguntza horien bidez, udal interesekotzat jotzen diren alor eta diziplinetan hainbat elkarte, entitatek eta norbanakoek egiten dituzten askotariko ekintzak edo jarduerak babestu nahi dira.

Eman beharreko dirulaguntzen bidez, udalak zenbait alorretan esku hartzen lagundu nahi die elkarte, entitate eta norbanako horiei.

Horregatik guztiagatik, Lezoko Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du, arestian aipatu arloetan proiektu eta hainbat jardueretarako dirulaguntzak emateko.

Deialdi honek hainbat dirulaguntza programa jasotzen ditu agiri bakar batean, dirulaguntzak hartuko dituzten elkarte, entitate eta norbanakoei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. 9 dirulaguntza programa jasotzen dira oinarri espezifikoaren atalean.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri orokorrak, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoaren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2018-11-06, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2024-02-28) eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren araudia 887/2006 errege dekretuan ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, eman beharreko zenbatekoa, dirulaguntza zertarako den justifikatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta abar.
2. Oinarri espezifikoak, euskara, gizarte zerbitzuen eta kirol sailak bere eskumeneko alorrean ezartzen dituztenak dira; bertan, besteak beste, laguntza programa bakoitzaren xedea eta berezitasunak, dirulaguntza baloratzeko irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria zehazten dira.

OINARRI OROKORRAK

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauek 2026 urterako norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute; horren kudeaketa Lezoko Udalari dagokio.

2. artikulua. Onarpena eta argitalpena.

Deialdi hau 2026-01-28ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu da.

Oinarriak oso-osorik Lezoko Udalaren egoitza elektronikoan eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren webgunean argitaratuko dira. Deialdiaren laburpena berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hau ere, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez bidalia.

3. artikulua. Araubide juridikoa.

Dirulaguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauek ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie udalak onartutako dirulaguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Lezoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua eta gai honi aplikatu dakizkioken indarreko arauak.

4. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina.

Halaber, kontuan izango da 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena. Honen arabera, 3. artikuluan eta 17., 19.4. eta 23. artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak eta mandatuak betetzeko eskatuko zaie EAEko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, EAEko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, haien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian. Aipatu dekretuko 3. artikuluan honako printzipioak jasotzen dira, besteak beste:

- Tratu berdintasuna
- Aukera berdintasuna
- Ikuspegi intersektzionala txertatzea

- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea
- Emakumeen ahalduntzea
- Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea
- Ordezkaritza orekatua

Horrez gain, aipatu dekretuko 17. eta 23. artikuluetan, besteen artean, ondorengo mandatu hauek ere jasotzen dira:

- Azterlan, ikerketa, estatistika edo datu bilketetan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea irudi eta hizkera mota guztietan. Lagungarri gisa Udaleko web orrian eskuragarri dagoen Hizkuntza barneratzaileari buruzko gida ikus daiteke (<https://lezo.eus/eu/berdintasuna/hizkuntza-barneratzailea-bultzatzeko-gida>).
- Dirulaguntzen onuradunek genero-ikuspegia txertatu behar dute euren jardunean eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak hartuko dituzte.

Lezoko Udalak ez die laguntzarik edo dirulaguntzarik emango sexuan oinarrituta edo diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

5. artikulua. Hizkuntz Betebeharrak.

EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokion arlo guztietan, bai ahoz, bai idatziz ondorengo arauetan jasotzen dena beteko da:

1. EAEko Estatutuaren 6. Artikulua.
2. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
3. Otsailaren 22ko, 19/2024 Dekretuaren 13.artikulua, b) atala.
4. Lezoko Udalak 2025eko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran onartutako VII. plangintzaldi (2023-2027) barruko hizkuntz irizpideak

Hizkuntz Irizpideetan jasotzen den bezala, besteen artean ondorengo hauek bete beharrekoak direla gogoratu behar da:

- Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak

herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).

- Dirulaguntzaren xede den ekintz(et)an euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespeta daitezen.
- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharra eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez euskaraz egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.
- Jardueraren hedapen lana eta jarduera bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz sarituko ditu Lezoko Udalak.
- Haur eta gazteentzat zuzendutako jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzen denean, aipatu jarduerak euskaraz izan beharko dute. Jarduera horietan euskara ulertzen ez duen hartzailerik balegobideak jarriko zaizkio jardueraren baitan esandakoak uler ditzan.
- Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete ezean, ez da dirulaguntzarik emango.

6. artikulua. Bestelako laguntzak.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

II. ONURADUNAK

7. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntza hauen onuradunak honako hauek izan daitezke:

Lezon ekimenak egiten dituzten Lezoko pertsona fisiko zein juridikoak betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute.

Halaber, Lezokoak ez diren entitateek ere, eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Lezon ekimenen bat burutzen badute, Lezoko herritarrak artatzen badituzte edota udalarentzat interesgarriak direla iritzitako jarduerak baldin badira.

Era berean, ezin izango dute onuradun baldintzarik eskuratu beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko beste edozein diskriminaziorik sustatzen duten elkarteak.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Udalarekin zorretan ez egotea.
- b. Pertsona fisikoen kasuan Lezon erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzean, eta hala egon izana gutxienez azken urtean edo bi urte metatuak izateak azken 15 urtetan.
- c. Zerga-betebeharretan egunean egotea.
- d. Gizarte-Segurantzarekin zorretan ez egotea.

- e. Izaera juridikoa duten elkarteek dagokien elkarte erregistroan inskribatuak egon beharko dute.
- f. Deialdi bakoitzerako eranskinean jasotako oinarri espezifikoetan jasotako baldintzak.

III. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

8. artikulua. Lekua eta dokumentazioa.

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki (eskaera entitate juridikoaren lehendakariak, idazkariak edo jabe ez den beste pertsona batek egiten badu, sinatutako ordezkaritza agiria aurkeztu beharko du, aurrez aurkeztua ez badu):

- Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Gurutze Santuaren plaza, 1).
- Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako dirulaguntzak atalean (www.lezo.eus).
- Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Lezoko Udalak, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Lezoko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiria edo agiri baliokidea.
- Foru Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez dagoenaren ziurtagiria.

Hala ere, egiaztatze honi uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Lezoko Udalak, ofizioz, egiaztatuko ditu ondorengoak:

- Lezoko Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.
- Eskaera-orrian adierazitako kontu korrontea eskatzailearena dela ziurtatzea.
- Entitateen dagokion Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.
- Entitatearen estatutuak.
- Entitatearen zuzendaritza osaketaren egiaztatzea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza eskaera-orri normalizatua. Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean jasotzen dena.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK))(Eskaera pertsona juridiko batek egin badu).
- Eskaera orrian eskatzaileak derrigorrez bere kontu korrante zenbakia adieraziko du. Kontu horretan egingo da dirulaguntzaren ordainketa.
- Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean adierazten den dokumentazio gehigarria.
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian, aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla ziurtatzen duena.
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian DLLOko 25. eta 26. artikuluetan ezarritako baldintzen arabera, dirulaguntzen itzuleragatik zorduna ez izatea ziurtatzen duena. (ED 887/2006-EAO 176-uztailaren 25ekoa).
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena, jasotakoaren kontrako jarduerak antolatu ez, jarrerak izan ez edo kontrako epai ez izatea ziurtatzen duena.

Eskatzaile fisiko edo juridiko batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Lezoko udalaren esku daudela eta udalak berak ere hori hala dela badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Dirulaguntza banatzeko oinarriak Lezoko web gunean (<https://www.lezo.eus>) eskuratu ahal izango dira.

IV. EPEAK

9. artikulua. Eskaera aurkezteko epea.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

10. artikulua. Dokumentazio osagarria.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen

ez badu, jakinarazi eta hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

V. PROZEDURA

11. artikulua. Ebazteko prozedura.

Honakoa izango da ebazteko prozedura:

- a) Dagokion arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du.
- b) Jarraian, Tokiko Gobernu Batzordearen akordio edo alkate dekretu bidez onartuko da.
- c) Azkenik, Tokiko Gobernu Batzorde akordio edo alkate dekretu bidez emango da dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena.

12. artikulua. Ebazteko epea.

Eskaerak erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da, gerora egin daitekeen ekarpenaren kaltetan izan gabe.

13. artikulua. Zenbatekoak.

Erakunde, elkarte edo norbanako bakoitzari zenbateko dirulaguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontuan hartuko da:

- Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurreikusitako zenbatekoa.
- Aurkeztutako ekintzen edo eskaeren kopurua eta nolakotasuna.

Bestalde, udalak ekintza baterako gastutzat onartutako kopurua baino gastu txikiagoa egiten bada edo ekintza egiten ez bada, dirua itzuli egin beharko da.

14. artikulua. Ordainketak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen dira dirulaguntza hauen ordainketa moduak.

15. artikulua. Bateragarritasuna.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketa egongo dirulaguntza publikoekin, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza

murritzatu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzuli behar izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Lezoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

VI. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

16. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau orokor eta espezifikoei jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Diruz lagundutako jarduera egitea edota helburuak betetzea.
- b) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea eta horietan ezarritakoa betetzea.
- c) Lezoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- d) Eskaera-orrian adierazi ez den beste administrazio edo erakunde publikoei (estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako eskatutako edo erakundeetatik jasotako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, Lezoko udalari horren berri ematea.
- e) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eman duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespina izatea.
- f) Ekintzei lotutako publizitatean Lezoko Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz
- g) Dirulaguntza jaso izanagatik jarduera edo zeregina bertan behera edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, onuradunak jasotako diru kopurua itzultzeko betebeharra izango du.
- h) Oinarri hauetan jasotako beste edozein betebeharrak.
- i) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Lezoko Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloetan jasotakoak beteko dira.
- j) Lezoko Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriak (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

Udalak edozein momentutan eskatu diezaieke entitate onuradunei betebeharrak hauek betetzen dituztela kreditatu dezaten.

17. artikulua. Ez betetzea.

Oinarri-arau hauetan xedaturiko baldintzak betetzen ez badira dirulaguntzaren berrikusketa egingoda, eta hala dagokionean, deuseztatu, gutxiagotu edota itzularazi azaroaren 38/2003 dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. eta 52. artikuluek eta ondorengoek aurreikusten

duten eran.

VII. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

18. artikulua. Balorazio irizpideak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

VIII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

19. artikulua. Justifikazioa

Dirulaguntzak justifikatzeko pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Egindako jardueraren memorian, diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan duen jakiteko, sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko dira pertsona guztiei (jasotzaile edo partehartzaileak, langileak, antolatzaileak eta elkarteko zuzendaritza kideak) buruzko kopuru datuak.
- b) Diruz lagundutako jardueraren sarrera gastuen balantze zehaztua.
- c) Diruz lagundutako jardueraren gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko egiaztagiri eta fakturak. Diruz lagundutako jarduerarekin eta datarekin bat egin beharko dute. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan haxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
 - Hornitzailearen identifikazioa.
 - Fakturaren data.
 - Kontzeptua.
- d) Udalak dirulaguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.
 - e) Dokumentazio grafikoa edota ikus-entzunezkoa, balego.
 - f) Oinarri espezifikoetan jasotako beste edozein egiaztagiri

IX. INTERPRETAZIOA

Oinarri-arau hauen interpretazioan edota garapenean sor daitezken zalantzak erabakia hartzen duen organoak argituko ditu.

X. ARAUDI OSAGARRIA

20. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Lezoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena, Lezoko Udalaren Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoak jasotakoa eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen eta garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren xedapenak.

Halaber, araudi horietan aintzat hartu ez diren kontuetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Lezoko Udalaren III. Berdintasun Plana.

Indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lezoko VII. Plangintzaldia.

Baita ere, aplikagarri da Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1).

OINARRI ESPEZIFIKOAK

I LERROA: EUSKALTEGIAN EUSKARA IKASTEKO (Dirulaguntza programa 8).

a.- Xedea

Dirulaguntza hauen xedea da euskaltegi homologatu batean euskara ikasten edo hobetzen jardungo edo jardun duten lezoarrei, zein Lezoko Udalak, euskara sustatzeko martxan jarritako plangintzaren batean parte hartzen duten Lezokoak ez diren norbanakoen matrikula ordaintzen laguntzea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

1. Dirulaguntza eskuratu ahal izango du:
 - a. Lezoko udalerriko euskaltegian edo beste edozeinetan izena eman eta ikastaroak egiten dituen lezoar orok.
 - b. Lezoko Udalak, euskara sustatzeko martxan jarritako plangintzaren batean parte hartzen duten Lezokoak ez diren norbanakoak (enpresak, merkataritza euskalduntzeko planak, hitzarmengintza, enpresak ...)
2. Dirulaguntza eskatzen dutenek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a. Euskarazko ikastaroan gutxienez %75eko asistentzia egiaztatzea, ondoko epeei dagokienez:
 - Neguko ikastaroak: Ordu 1 egunean (5 ordu astean). Merkatarien kasuan aplikatzen den ikastaroaren arabera.
 - Udako ikastaroak: ez da ordu-kopuru jakinik eskatzen.
 - Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan jasotzen den C1 edo C2 mailako ikastaroak: 120 ordu gutxienez.
 - Barnetegiko ikastaroak: Hilabete bat gutxienez.
 - Etorri berrientzako ikastaroak: AISA ikastaroak edo etorri berrientzat propio antolatutako ikastaroak.
 - b. Asistentzia zehazterakoan, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
 - Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegira joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).

- c. Hala dagokionean, bere elkarte edo erakundearen eta udal euskara sail honen arteko lankidetzat-hitzarmena bultzatzen laguntzea.
- d. Lezoko udaleko gizarte zerbitzuek bere programaren baitan, aldeko txosten bidez, ikastaro normal edo berariazkoetan parte hartzea onesten duen kasuetan, ikasleek ez dute matrikularik aurretik ordaindu beharko, Lezoko Udala arduratuko da horretaz. Era berean, aldeko txostenean jasoa dagoen kasuetan, 7. artikuluko a. eta b. puntuetan jasotakoak ere, ez dira bete beharrekoak izango.
- e. HABEren dirulaguntza jasotzeko baldintzak betez gero, HABEri dirulaguntza eskatu izana.

Udako ikastaroetara doazenak:

- 1. Uda aurreko ikasturtean euskaltegi batean aritu izana lehenetsiko da (%75eko gutxienezko asistentzia edukita).

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Euskaltegiako matrikularen kopia edo matrikulatu izan denaren ziurtagiria.
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitorpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III) inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).
- B. Ataleko, 2.d puntuan jasotako ikasleen kasuan, Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena edo ziurtagiria.
- Lezon erroldatuak ez daudenen kasuan lan egiten duen Lezoko enpresaren edo erakundearen ziurtagiria edota Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena.
- 13 urte baino gutxiago dituzten haurren gurasoen, legezko tutoreen edo aitona-amonen kasuan: Matrikulazio modalitate hau hautatzen duten ikasleek familia liburuaren kopia (edo matrikula murrizketarako eskubidea duela adierazten duen beste agiri ofizialen bat).

d.- Epeak.

Eskabide ezberdinak aurkezteko epeak ondokoak dira kasu bakoitzeko:

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta,

Dirulaguntza eskaera ikasturte hasieran egindakoek:

- 2026ko urriaren 1etik 30era eskaera egitea (Biak barne).
- 2027ko uztailaren 9ra (Barne), asistentziaren justifikazioa aurkeztea.

Dirulaguntza eskaera ikasturte amaieran egindakoek. Eskaera eta justifikazioa batera:

- Iraila-ekaina bitartean egindako ikastaroak 2027-07-09a (Barne).
- Uztaila-iraila bitartean egindako ikastaroentzako 2027-10-08a (Barne).
- Hirugarren epe bat zabalduko da aurreko bi epeetatik kanpo geratu direnentzat. Edonola, hirugarren epe honetan, beti ere eskaerak 2027-12-31 (Barne) baino lehen egin beharko dira.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak eskaerak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera esleituco dira. Nolanahi ere, emandako dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza-lerro honen xede diren dirulaguntzetarako zenbatekoa 40.000 eurokoa izango da, 481.02.335.00 aurrekontu-partidaren kontura, honela banatuta: 20.000 euro 2026ko ekitaldiari dagozkionak eta 20.000 euro 2027ko ekitaldiari dagozkionak.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskaeren ondorioz emango diren dirulaguntzen zenbateko osoak aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura gaitzen badu, deialdi honi esleitutako kreditua handitu ahal izango da, indarrean dagoen aurrekontu-araudian aurreikusitakoaren arabera eta dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren.

Euskara ikasteagatik ordaindutako matrikularen %100a ordainduko da, gehienez ere 700,00 euro arte, azpian aipatzen diren ordainketa moduen artean, edozein delarik ere.

- Ordainketa moduak:

a) Matrikularen erdia ikasturte hasieran ordaintzea:

Ikasturte hasieran eskaera egiten duten ikasleek, matrikularen %50 jaso ahal izango dute.

Modu honetan, ikasleek matrikularen %50 ez dute aurreratu beharko.

Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin ondoren, bekaren lehen zatiaren ordainketa tramitatuko da; hau da, matrikularen kostuaren % 50arena.

a.1) Dirulaguntza berezia:

13 urte baino gutxiago dituzten haurren gurasoen, legezko tutoreen edo aitona-amonen matrikula motaren kasuan, aurrerakina % 50ekoa beharrean % 70ekoa izango da.

a.2) Kobrantza-eskubidearen lagapena (endosua)

Eskatzaileak Udalari baimena eman ahal izango dio emandako dirulaguntzaren lehen zati horren zenbatekoa zuzenean euskaltegiari ordaintzeko, endosu bidez, dirulaguntza eman den xederako erabiltzen dela bermatzeko.

Horretarako, eskatzaileak, eskabide-orrian bertan, baimen hori berariaz adierazi beharko du.

Matrikularen bigarren zatia ikasturtea amaituta jasoko dute, dagokion justifikazioa aurkeztu ondoren, hala badagokie.

b) Ikasturtea hasita izena emandakoak eta udako ikastaroak:

Behin ikasturtea hasi eta a) modalitatea baliatu ez duten ikasleek eta udako ikastaroetan parte hartu dutenek, eskaera eta justifikazioa batera dagokien epean aurkeztu ondoren, matrikula kostuaren %100a ordainketa bakarrean jasoko dute, hala badagokie.

f.- Justifikazioa.

Ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, b ataleko 2.d puntuan jasotzen diren kasuak ezik).
- Euskaltegiaren ziurtagiria. Bertan ikasturtean egindako urratsaren errendimenduaren eta izandako asistentzia indizeak jaso beharko dira.

Beka eskaera, jarduera egin eta gero egiten denean, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Beraz, *c. Eskabideak* atalean jasotako dokumentazioa, eta *f. Justifikazioa* atalean jasotakoa, guztia batera, aurkeztu beharko da.

Asistentzia ez betetzearen ondorioak (beka itzultzea):

Ikasturte hasieran beka eskatu bai, baina gutxieneko asistentzia betetzen ez dutenen kasuan, oinarri orokorren 17. artikuluan aurreikusitako moduan jardungo da, eta ezingo dute datozen 4 ikasturteetan beste bekarik eskatu.

Udalak aurreratutako diru kopurua itzuliz gero, 4 urtetarako ezarritako beka eskatzeko debekua indargabetuko da.

Udalak gehienez bi alditan bidaliko dio ikasleari, diru itzulketa egiteko epearen jakinarazpena.

Diru-itzulketa ikastaroa amaitu den urteko irailaren 30a (barne) baino lehen egin beharko da.